



HURRENGO LEGEGINTZALDIRAKO PROPOSAMENAK:

ALDERDI POLITIKOEK KONPROMISOA HARTZEA DESGAITASUNA DUTEN PERTSONEN ESKUBIDEEI BURUZKO KONBENTZIOA NAHITAEZ BETETZEKO

(2024ko HAUTESKUNDE AUTONOMIKOAK)

Elkartean Euskadiko Desgaitasun Fisikoa duten Pertsonen Elkarte Koordinatzailea da. Euskadin 16.000 bazkide baino gehiago izanik, gure eskubideak eta interesak ordezkatzeko eta defendatzeko ditugu, aukera-berdintasuna eta irisgarritasun unibertsala lortzeko, bizimodu independentea eta komunitatean benetan parte hartzea bermatze aldera. Hiru lurraldeetan gaude elkarte hauen bidez: eginaren eginez, elkartu eta fekoor.

Elkarteanek alderdi politikoen konpromisoa eskatu nahi du Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Nazio Batuen Konbentzioan aitortzen zaizkigun eskubideak gauzatzeko, ikuspegi intersektorialetik eta genero-ikuspegitik, kontuan hartuko duena, zeharka, desgaitasuna ez ezik, desgaitasuna dugun emakumeok jasaten ditugun era askotako diskriminazio-egoerak sortzen dituzten beste faktore batzuen aldiberekotasuna.

BIZIMODU INDEPENDENTEA. NON, NOLA ETA NOREKIN BIZI NAHI DUGUN erabakitzeko eskubidea, gainerako pertsonen baldintza berberetan, bizi-sistema espezifiko baten arabera bizitzera behartuta egon gabe, gizarte anitz batean, gizarte erabat inklusibo eta irisgarrian, berdintasunezkoan eta indarkeriarik gabekoan, komunitatetik isolatzea eta banantzea ezabatuko duten eta gure parte-hartze aktiboa bermatuko duten beharrezko eta ezinbesteko baliabide eta laguntzekin.

- 1) **EUSKADIN BIZIMODU INDEPENDENTEA IZATEKO ESKUBIDEA ARAUTZEA**, Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Konbentzioaren 19. artikuluan jasotakoarekin bat etorritik, eta “Euskadin desgaitasuna duten pertsonentzako bizimodu independentearen ereduaren oinarriak ezartzeko diagnostikoa” garatzeko. Diagnostiko hori erakunde publikoek eta desgaitasuna duten pertsonak ordezkatzeko dituzten erakundeek egin dute, Euskadiko Elkarriazketa Zibilerako Mahaiaren esparruan.
- 2) **LAGUNTZA PERTSONALA BERMATZEA**, bizimodu independentea garatzeko eta komunitatean parte hartzeko prestazio ekonomiko nahikoarekin. Laguntzaile pertsonalen poltsa bat eta

baliabide publiko bat ezartzea, kontratazioaren kudeaketa errazteko. Laguntzaileen titulazioaren eta kontratazioaren baldintzak malgutzea, askatasunez aukeratuko dela bermatzeko. Laguntza pertsonala zerbitzu eta prestazio guztiekin bateragarri egitea, desinstituzionalizazio-ibilbideak ahalbidetzeko.

- 3) **ETXEBIZITZA DUINA, EGOKIA ETA IRISGARRIA**, hori bermatuko duten neurri eta laguntza publikoak ezarriz, eta aktiboki parte hartuz jabetza horizontaleko irisgarritasun-baldintzen eskakizunean, mugikortasun urria duten pertsonen isolamendu- eta konfinamendu-egoera behartuak desagerrarazteko.
- 4) **BEHAR BESTEKO DIRU-SARRERAK BERMATZEA**, eta horretarako, behar-beharrezkoa da Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta eta Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarrera garatzea, desgaitasunaren gainkostua kontuan hartuta eta beste edozein zerbitzurekin (baita egoitza-zerbitzurekin ere), prestazio ekonomikorekin edo pentsiorekin bateragarria dela bermatuta, desgaitasuna duten emakumeei eta gizonei gizarteratzeko eta bizimodu independenterako ibilbide eraginkorrak bermatzeko. Emakumeengan jarri behar da arreta, muturreko pobrezia bereziki eragindako kolektiboa baikara; izan ere, desgaitasuna dugun emakumeen tasa gainerako biztanleen tasa halako hiru da, eta desgaitasuna duten gizonena baino % 40 handiagoa (Desgaitasuna duten 60 urtetik gorako emakumeen muturreko pobrezia-tasa adin horretako gizonena halako bi da ia).
- 5) **BIZIMODU INDEPENDENTEAREN BULEGOA**, laguntza-baliabide hori aitortu, diseinatu eta ezartzea, bizimodu independenterako proiektuen garapenean laguntzeko, orientatzeko eta lagun egiteko, Konbentzioaren 19. artikulua araber.
- 6) **FAMILIA ZAINKETA DUINTASUNA**, erakundearen eta gizartearen aintzatespena barne, Familia Giroan Zaintzeko Prestazio Ekonomikoa (gaztelaniaz, PECEF) bezalako prestazioak eskuratzeko oztupoak ezabatuz eta babes sozialeko sistemen estaldura zehatzarekin. Zaintza-lanetan dauden genero-alborapenak ezabatzea, desgaitasuna dugun emakumeok zainketa-hartzailetzat soilik jotzen baikaituzte, eta ez geure burua zaintzeko eta askatasunez aukeratutako familia zaintzeko gai diren emakumetzat. Zaintza unibertsal, bermatu eta erantzukizun publikoko eredu publiko bat zabaltzea, emakume eta gizon guztien bizimodu independentea sustatzearen alde lan egingo duena, gure egoera fisikoa edo mentala edozein dela ere, giza eskubideen, erabakitzeko eskubidearen, genero-ikuspegiaren eta ikuspegi intersektionalaren ikuspegia kontuan hartuta. Zaintza-eredu hori hedatzeko behar diren baliabide ekonomikoen zuzkidura izatea.
- 7) **EGOITZA-ARRETA EREDUA ERALDATZEA**, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako zerbitzuen eta prestazioen eskaintza zabala, anitza eta malgua ziurtatuz, bizimodu independentea eta desinstituzionalizazio-ibilbideak bermatzera bideratua, desgaitasuna dugun emakume eta gizonek gure komunitatean parte har dezagun, gainerako pertsonen aukera berdinetan.



IRISGARRITASUN UNIBERTSALA. INGURUNE, PROZESU, ONDASUN, PRODUKTU ETA ZERBITZU GUZTIEK bete behar duten baldintza da, baita objektuek, tresnek eta gailuek ere, emakume eta gizon guztiek segurtasun- eta erosotasun-baldintzetan eta ahalik eta modu autonomoenean eta naturalenean ulertu, baliatu eta erabili ahal izateko eskubidea izan dezaten. Genero-ikuspegidun hiri-diseinua egitea, desgaitasuna duten emakumeentzat eta neskentzat espazioak seguruak izan daitezten. Izan ere, horiek dira, hain zuzen ere, indarkeria, bereziki sexu-indarkeria, jasateko aukera gehien dutenak.

- 8) **IRISGARRITASUNAREN EUSKAL ESTRATEGIA GAUZATZEA**, irisgarritasun-planaren eredu berriaren definizioa eta araudiaren eguneratzeak kontuan hartuta. Jarduketa—~~irre~~ eraginkorrak egingo dira, eta eremu guztietan (espazio publikoak, garraioa, eraikuntza, hezkuntza, osasuna, aisia, kultura, kirola eta abar) hedatzeko aurrekontu-zuzkidura izango da. Horretarako, Eusko Jaurlaritzako, aldundietako eta udaletako sail guztietan zeharkako derrigortasuna ezarriko da, eta hura aplikatzea eta betetzea dagokien eragile guztiak inplikatuko dira (arkitekturako, ingeniarietako, urbanizazioko eta diseinuko profesionalak, epailetzako eta fiskaltzako profesionalak, udal-teknikariak eta abar).
- 9) **ZENTZUZKO DOIKUNTZEN KONTZEPTUAREN APLIKAZIO BATERATUA ESPARRU GUZTIAN**, Konbentzioaren arabera, irisgarritasuna bermatuz, eskubideak baliatzeko ezinbesteko baldintza baita, eta ez da eskubide hori ez betetzeko aitzakiatzat erabiliko bereizi gabe eta modu orokorrean aplikatzea. Kontzeptu hori kasu partikularretan bakarrik aplika daiteke, baldin eta premia indibidualei erantzuteko egokitzapenak eskatzen badira, eta, betiere, kontuan hartuta, beste irizpide batzuen aurretik, neurri horiek ez hartzeak ~~kaltetutako~~ pertsona bakoitzari eragiten dizkion diskriminazio- eta bazterketa-ondorioak.
- 10) **IRISGARRITASUN UNIBERTSALA GARRAIO AZPIEGITURA ETA GAILU BERRIETAN**, Euskadiko lurralde osoan, lurralde historiko bakoitzean, lurraldearteko konexioetan eta beste autonomia erkidego edo herrialde batzuen arteko konexioetan: AHT eta trenbideko, errepideko, itsasoko, ibaiko eta aireko garraiorako gainerako azpiegiturak eta gailuak.

ENPLEGU ARRUNTA. Gainerako pertsonen baldintza berberetan lan egiteko eskubidea. Horrek barne hartzen du gure bizimodua ateratzeko eskubidea, merkatu eta lan-ingurune IREKI, INKLUSIBO eta IRISGARRI batean askatasunez aukeratutako edo onartutako lan baten bidez; izan ere, desgaitasuna dugun emakume eta gizonok zailtasun eta oztopo handiagoak izaten ditugu enplegua lortzeko, enplegu horri eusteko eta enplegu horretan mailaz igotzeko, enpleguaren esparruan.

- 11) **PAREKATZEA, GUTXIENEZ, ENPLEGU ARRUNTARI ETA BABESTUARI LAGUNTZEKO NEURRIAK**, urriaren 17ko 152/2023 Dekretuan jasotakoak (Euskal Autonomia Erkidegoan desgaitasuna duten pertsonen enplegarritasunarekin loturiko programak eta zerbitzuak eta Enplegu

Zentro Berezien Euskal Erregistroa arautzen dituen Dekretua), Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Konbentzioaren 27. artikularekin bat etorritz.

- 12) **BERARIAZKO ARAUDIA GARATZEA DESGAITASUNA DUTEN PERTSONENTZAKO ERRESERBAKUOTA ZABALTZEKO ETA APLIKATZEN DELA BERMATZEKO** , 50 langile baino gutxiago dituzten enpresetan eta kooperatibetan (Euskadiko enpresa-ehunaren gehiengoa) eta laguntza espezifikoak eta nahikoak ezartzea norberaren konturako langileak eta desgaitasuna duten pertsonen ekintzailletza babesteko.
- 13) **DESGAITASUNA DUTEN PERTSONEK ENPLEGU PUBLIKOA LORTZEN DUTELA ZIURTATZEA**, ekintza positiboko neurriekin eta beharrezkoak diren baldintzekin lanpostu eta fase guztietan (enplegu-poltsa, sarbide-probak, enpleguari eustea eta mailaz igotzea), bai funtzionarioentzat, bai lan-kontratudun langileentzat. Gaitasuna egiaztatzeari buruzko eskakizun diskriminatzaile oro ezabatzea, bai eta desgaitasuna duten pertsonentzat gordetako deialdi espezifikoak ere, deialdi orokorretan aukera-berdintasunaren printzipioa behar bezalako bermeekin aplikatzeko.
- 14) **LAN-ORIENTAZIOAREN KUDEAKETA PUBLIKOA BERMATZEA** desgaitasuna duten pertsonen, gainerako biztanleei bezala, eta, horretarako, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari baliabide ekonomiko, giza baliabide eta material nahikoak eta egokiak ematea.
- 15) **LANPOSTUEN EGOKITZAPENA ZIURTATZEA ETA BERRIKUNTZA TEKNOLOGIKOA BULTZATZEA**, desgaitasuna duten pertsona guztien enplegua errealitate bihurtzeko. Desgaitasuna duten pertsona guztiei enplegua lortzea bermatzea, sexua, adina edo egoera fisikoa edozein dela ere, kasu bakoitzean eta bizi-zikloko une bakoitzean behar ditugun baliabideak emanez.

HEZKUNTZA-ESKAITZA ETA -INGURUNE erabat **INKLUSIBO ETA IRISGARRIA** izateko eskubidea, irakaskuntza-maila guztietan eta jardura eta zerbitzu guztietan: eskolakoak, eskolaz kanpokoetan, orientaziokoetan, jolastorduan, irteeretan, jantoki-zerbitzuan, eskola-garraioan, etab. Haur guztiek ahalik eta gehien garatuko dituzte beren nortasuna, talentua eta sormena, bai eta gaitasun mentalak eta fisikoak ere.

- 16) **HEZKUNTZA-LAGUNTZA, HEZKUNTZA-INDARGARRI ETA EGOKITZAPEN INDIBIDUALIZATU GUZTIAK ZIURTATZEA**, EAEko Hezkuntzaren 17/2023 Legearen eta hezkuntza-sistema inklusibo baten esparruan aniztasunari erantzuna ematen dion araudiaren arabera, desgaitasuna duen pertsona bakoitzak bere ikaskuntza garatzeko eta bere helburuak eta itxaropenak gainerako pertsonenak dituzten aukera berdinekin garatzeko.
- 17) **DESGAITASUNA DUTEN PERTSONAK HEZKUNTZAREN DIGITALIZAZIORA IRISTEA ZIURTATZEA**, baliabide teknologikoetan beharrezkoak diren banakako egokitzapenak jarrita eta haien zako gainkosturik gabe, eta informazioaren eta komunikazioaren teknologietarako sarbidean dagoen genero-arrakala ezabatzea.

- 18) **ORIENTAZIO EGOKIA ZIURTATZEA**, pertsona bakoitzaren nortasuna, ahalmena eta gaitasunak ahalik eta gehien garatzeko, banakako beharrei eta etorkizuneko itzaropenei erantzunez. Horretarako, ekidin egingo dira orientazio diskriminatzaile espezifikoak, genero-alborapenak eta -estereotipoak eta enplegu babestuko aukerak, espazio edo ibilbide bereizle eta ez-inklusiboak.
- 19) **HEZKUNTZA-ESKAINTZAREN ETA LAN-GARAPENAREN ARTEKO LOTURA BERMATZEA**, prestakuntza-ingurune ireki, inklusibo eta irisgarrietan, seguruetan eta desgaitasuna duten pertsonentzako indarkeriarik gabeko inguruneetan, prestakuntza-eskaintzara eta lan-garapenera bideratzerakoan genero- eta gaitasun-alborapenak saihestuz.
- 20) **IRISGARRITASUN-BALDINTZA GUZTIAK BERMATZEA** ikastetxeetako azpiegituretan, espazioetan eta gailuetan, irakaskuntza-maila guztietan, eta saihestu egingo da irisgarriak izanik ere desgaitasuna duten neskentzat eta emakumeentzat seguruak ez diren espazioak sortzea, eremu ilunetan eta ikusgarritasun gutxi dagoen lekuetan eraso eta indarkeria-egoerak jasaten baititugu; era berean, segregazioan oinarritutako lanbide-heziketako ereduak baztertu egingo dira.
- 21) **BEKEN ETA LAGUNTZEN SISTEMA BAT BERMATZEA**, desgaitasunaren gainkostua eta pertsonen aukera askea kontuan hartuta.

EMAKUMEAK ETA BERDINTASUNA. GIZONEN ESKUBIDE BERBERAK ESKURATZEKO ETA ERABILTZEKO eskubidea, hainbat faktore elkartzearen ondorioz jasaten ditugun diskriminazio-modu ugariak gaindituz. Lanketa hori bi aldiz zeharkakoa izan behar da, hau da, genero-ikuspegia desgaitasun-politiketan txertatuko da, eta desgaitasuna genero-politiketan.

- 22) **INTERSEKZIONALITATEAREN PRINTZIBIOA KONTUAN HARTUTA, GENERO-IKUSPEGIA ETA DESGAITASUN-IKUSPEGIA POLITIKA, JARDUERA ETA NEURRI GUZTIETAN TXERTATZEA**, desgaitasuna dugun emakumeok gure eskubide guztiak eskura eta erabil ditzagun, ekintza positiboko neurriekin eta aukera berdinekin eremu guztietan: bizimodu independentea, enplegua, irisgarritasun unibertsala, hirigintza-plangintza, osasuna, prestakuntza, hezkuntza, aisialdia, kultura, kirola, gizarte-zerbitzuak, eta sexu- eta ugalketa-eskubideak.
- 23) **KONTUAN HARTZEA DESGAITASUNA DUTEN EMAKUMEEN ERREALITATE BEREZIA ETA PREMIAK** indarkeria matxista jasaten dugun emakumeon prebentzio-, arreta- eta babes-politiketan, kontuan hartuta jasaten ditugun indarkeria-mota ugariak eta erasotzaile motak.
- 24) **EAE-KO EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO 2030 ESTRATEGIA GAUZATZEA**, jarduera eraginkorrekin eta hura hedatzeko eta betetzeko aurrekontu-zuzkidurarekin; era berean, hura betetzen dela ziurtatzeko ezarriko den zehapen-araubidea ere gauzatuko da.

OSASUNA. Behar den OSASUN-MAILA izateko eskubidea, desgaitasunagatik, sexuagatik edo adinagatik DISKRIMINAZIORIK eta estereotiporik GABE, osasun-arreta zehatza, onargarria, eskuragarria, segurua, indarkeriarik gabea, kalitatezkoa eta gogobetegarria izango dugula bermatuz. pertsona bakoitzaren beharrak eta egoera kontuan hartuta, erabakitzeko eta behar den informazio guztia izateko eskubidean oinarrituta.

25) DESGAITASUNA DUTEN PERTSONEK OSASUN-SISTEMAKO PRESTAZIO, PROBA DIAGNOSTIKO ETA TRATAMENDU GUZTIAK ESKURA DITZATEN ZIURTATZEA, genero-diskriminaziorik eta -alborapenik gabe, eta gainerako herritarren baldintza berberetan.

26) IRISGARRITASUN-BALDINTZAK ZIURTATZEA sarbidean, arretan, tratamenduetan, azpiegituretan, gailuetan, proba medikoetan eta diagnostikoetan, eta abar, osasun-arretako zentro eta maila guztietan (lehen mailakoa, ospitalekoa, larrialdi medikoetan...). Bereziki, Arartekoak "EAEko ospitaleek ezgaituentzat duten irisgarritasunaren diagnostikoan" identifikatutako gabeziak eta zailtasunak luzamendurik gabe jorratu behar dira, bai eta beste zentro, gailu eta gune batzuetan identifikatutakoak ere. Baita espezialitate guztietan ere, sexu- eta ugalketa-osasuna barne hartuta. Historikoki, desgaitasuna duten gizonek eta, batez ere, emakumeek ez baitugu osasun-zerbitzu horiek jasotzeko erraztasunik izan.

27) LAGUNTZA-PRODUKTUEN, LAGUNTZA TEKNIKOEN ETA MATERIAL ORTOPROTESIKOAREN ESKAINTZA HOBETZEA (katalogo ortoprotesikoa), haien hedapena, dibertsifikazioa eta pertsonalizazioa bermatuko duten berrikuntza teknologikoak txertatuz. Laguntzen zenbatekoak ezartzea, desgaitasunaren gainkostua kontuan hartuta, eta estatuko araudiaren elementuak integratzea, bertan ezarritako oinarriak gainditu eta hobetuko dituzten baldintzak bermatuz.

28) GIZARTE ZERBITZUEN SISTEMAREKIN KOORDINAZIO EGOKIA ZIURTATZEA, ETA "ESPazio SOZIOSANITARIO" ERAGINKOR BAT SORTZEA, eta arreta ematea kronikotasun-egoerei, bai eta emakumeen aurkako indarkeria matxistak jasateak larriagotutako desgaitasunei edo gerora gertatutakoei ere. Horretarako, erantzun zehatzak eta eraginkorrak emango zaizkie errehabilitazio-zerbitzuetan edo ospitaleetako alden ondoren behar diren baliabideetan, besteak beste.

ORO HAR, AURREKO ESPARRU GUZTIAN APLIKATU BEHARREKOA

- 29) **BEHATOKI, ESTATISTIKA, AZTERLAN ETA TXOSTEN GUZTIETAN**, bai datuak biltzeko metodologian, bai datuak ustiatzean, aztertzean eta eremu guztietako argitalpenetan, desgaitasunaren aldagaia eta beste aldagai batzuk (sexua, adina, desgaitasun-mota eta -maila, etab.) sartzeari, modu orokorrean eta zeharka, errealitateari ahalik eta gehien egokitzen den argazkia izateko.
- 30) **EUSKADIKO HIRUGARREN SEKTORE SOZIALEKO ERAKUNDEEN BENETAKO PARTE-HARTZEA BERMATZEA** politika eta jarduketan plangintzan, betearazpenean eta ebaluazioan eremu guztietan, Elkarriketa Zibilaren eta Gobernantzen printzipioen arabera, Euskadiko Hirugarren Sektorerako Sozialaren Legea aplikatuz.
- 31) **DESGAITASUNAREN HAINBAT EREMURI BURUZKO EZAGUTZA SORTZEA BULTZATZEA**, herritarrek sentsibilizatzeko eta estereotipoak hausteko.